

**ASLEko BATZAR NAGUSIAREN AMAIERA
CLAUSURA ASAMBLEA GENERAL DE ASLE**

2024-05-24 Bilbao 24-05-2024

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Herri agintari eta ordezkariok, bai sailburu eta foru diputatuok, ASLE-ko arduradun eta kide guztiok, jaun-andreok, egun on!

Eskerrik asko, beste behin ere, Batzar Nagusi honetara gonbidatzeagatik eta parte hartzeko aukera emateagatik.

Gogoan dut iazko Batzar Nagusian elkartu ginenean. Egun hartan, zuen eredia azpimarratu eta balioan jarri nuen. Ez dut iritzirik aldatu. Alderantziz, egunez egun indartu dut.

Ekimen pribatuaz hitz egiten dugunean ez gara justuak izaten ekimen hau guztia zaku berean sartzen dugunean. Izan ere, gure herrian hamaika eredu ezberdin ezagutzen ditugu. Denak onak. Denak balekoak.

Hori bai, aitortzen dizuet zuen ausardia eta erabakitasuna. Horrela da, oso ausartak izan zineten zuen enpresaren parte izatea erabaki zenutenean.

Askotan esan dut. Nire ustez, enpresa bat proiektu berean konprometituta dauden enpresari eta langileen batura da. Horrela ulertzen dut nik, behintzat.

Batzuentzat ona dena besteentzat ona ere badela sinetsi beharko genuke. Elkarrekiko konpromiso zintzoa izateaz ari naiz.

Langilea gustura dagoenean, enpresaria ere irabazten aterako da. Eta, alderantziz. Enpresari batek bere langileen egoeraz benetan arduratzen bada, argi dago langilearen inplikazioa handiagoa izango dela. Denok proiektu bera partekatzea ezinbestekoa da.

Hoy, en este día tan especial, vuelvo a poner en valor vuestra valentía. Ese día en el que, de verdad, creísteis en vuestras posibilidades y tomasteis la decisión de dar un paso adelante, asumir una responsabilidad y un riesgo para sacar adelante la empresa.

El Gobierno y las instituciones vascas ponemos en valor un modelo de sociedad laboral y de empresa participada. Una economía social y un modelo de empresa inclusivo, participativo, humano y sostenible que encaja con un ideario que tiene profundas raíces en nuestra sociedad.

Nos habéis escuchado defender, también lo ha hecho la Presidenta, la filosofía “auzolana”, el esfuerzo compartido en pos de un bien común. Tenemos muy claro que es el trabajo conjunto, el compromiso compartido, el que nos hace avanzar. También como País.

Fruto de ese esfuerzo colectivo, y a pesar de las dificultades, Euskadi avanza y cuenta con buenas previsiones de cara al futuro (a pesar de que este año todavía la cartera de pedidos ande *así así*):

- La economía vasca crece y consolida una tendencia de crecimiento cercana al 2% tanto este año como el siguiente,
- Seguimos creando empleo, con más de un millón de personas trabajando y cotizando y mejora también la calidad del empleo,
- Por quinto año consecutivo Euskadi se mantiene a la cabeza de las Comunidades en renta disponible y estamos por encima de la media europea (preocupa también que estemos a la cabeza del ranking del absentismo),
- La inversión, exportaciones y llegada de visitantes demuestran la competitividad y atractivo de nuestro tejido económico y productivo.

Tenemos retos, sin duda, y estamos expuestos a un contexto global de incertidumbre. Ahora bien, la estabilidad, solvencia, capacidad de inversión, apuesta por la innovación y la internacionalización de la economía vasca son un activo sólido de nuestro País. Lo hemos construido trabajando juntas y juntos, siguiendo el “espíritu de ASLE”.

Hago más las palabras de la Presidenta: contáis con nuestro respaldo para seguir desplegando la idea de “trabajo colaborativo”. Os pido que mantengamos este compromiso compartido.

Egindako bideari jarraipena eman behar diogu, betiere etengabeko hobekuntza lehenetsiz.

Inbertitzen eta berrikuntzan ahalegin handia egiten jarraitu behar dugu, egunero enplegu gehiago eta hobeak sortzen lagundu behar dugu. Gure enpresen lehiakortasuna bermatuko duen trantsizio energetiko justua burutu behar dugu, ekonomia berriak eskaintzen dizkigun aukeretara egokitu eta digitalizazioaren erronkari ere aurre egin behar diogu...

Badugu lana eta zeregina, eta badugu eredia. Ziur naiz, orain arte bezala, lankidetzaren bidea jorratuz gure Herriak aurrera egiten jarraituko duela.

Eskerrik asko, bihotzez, urte hauetan zehar erakutsi duzuen eta didazuen konpromisoagatik!

Egun ona izan!